



Talde-kontakizun bat

*Wikitorikiko Wikiriki egoitza programarako
Laura Latorre eta Guillermo Veraren
proposamen bat.*

Aurkibidea

Hitzaurrea	4
Talde-kontakizun bat	5
1. agerraldia	6
2. agerraldia	11
3. agerraldia	18
<i>Auzolan</i> Talde-dokumentua	23
4. agerraldia	28
5. agerraldia	39
1. gutuna	47
2. gutuna	51
Glosarioa	57

Talde-kontakizun bat

*Wikitokiko Wikiriki egoitza programarako
Laura Latorre eta Guillermo Veraren
proposamen bat.*


Hitzaurrea

Talde-kontakizun bat Laura Latorre Hernandoren eta Guillermo Vera Idoateren proposamena da. Proposamenaren helburua zera da: praktika narratiboaren oinarrien bitartez, Wikitoki komunitatea laguntzea bere kultura afektiboa eta antolakuntzakoa nolakoa den deskribatzen duen ez-fikziozko literatura-kontakizun baten sorreran.

Praktika narratiboa laguntza terapeutiko, pedagogiko eta komunitarioko modu bat da, errespetuzko jarreraz abiatzen dena, eta pertsona zein komunitate guztiak euren bizitzetan adituak direla onartuz. Praktika honen bidez, testuinguruak sortu nahi dira norberaren esperientziari buruz hausnartzeko eta komunitateen norabidea zehazten laguntzeko, ezaguna eta familiarra denetik ezagutu, egin eta izan daitekeenera mugituz.

Talde-dokumentuak sortzeko praktika narratiboaren metodologian oinarrituz, kontakizun hau gure egonaldian zehar garatu ditugun banakako eta taldeko elkarrizketetan oinarrituta idatzi dugu. Prozesu honetan Wikitokiren ezagutzak eta gaitasunak dokumentatu ditugu, tartean dauden pertsona guztien ahotsen aniztasuna jasoz. Pertsonaiak Wikitokiko pertsona zehatzekin bat ez datozen arren, haren hainbat ahots nahastuz sortuak izan dira. Komunitate osoak izan du kontakizun hori zuzentzeko, zabaltzeko, aldatzeko eta baliozkotzeko aukera, sormen prozesuaren parte izanik.

Argitalpen honek talde-kontakizuna, egonaldi prozesuaren bi gutun eta glosario bat biltzen ditu. Espero dugu dokumentu hau beste batzuk inspiratzeko eta mundua ulertzeko prozesuak eta moduak partekatzen dituzten kolektiboen arteko loturak sortzeko plataforma izatea.



PORRU BAT DA HAU

1. Agerraldia

Ruti arraroa egiten zaio nagikeriarik gabe esnatzearen sentsazio hori. Argi dago hiri eta lan aldaketak pena merezi izan duela.

Denbora soberan duela irteten da etxetik; izan ere, bere auzo berriko kaleetatik patxadaz joatea eta itsasadarrera gerturatzea gustuko du. Oinez doan bitartean, jakin-minez begiratzen die jatorri askotariko produktuak saltzen dituzten saltokiei. Kalea jendez beteta egoten da beti, eta betiko tabernak ere badaude oraindik, erakusleihu hutsak ez diruditen hoietakoak.

Harrobi plazara iristean, zigarro bat erretzen ari den Fer topatuko du.

— Egun on! Zer moduz, Rut?

— Egun on, Fer! Ondo, gaur eguzkiaz gozaten, normalen hemen asko ikusten ez baita— oihukatzen du irribarre batekin.

— Bai, aprobetxatu egin behar da. Eta zer moduz hemen? — galdetzen du Ferrek Wikitokiko leihoak seinalatuz.

— Ondo, poliki-poliki, dena ulertzen saiatuz... —aitortzen du Rutek zorrotik biltzeko tabako pakete bat ateratzen duen bitartean.

—Bai, Wikitoki konplexu samarra da, ezta?

—Uf, oso konplexua da —dio 'oso' hori indartuz.

—Batuetan oso hizkera kriptikoa erabiltzen dugu, ezta?

—Bai, hala da, batuetan zuei begira geratzen naiz esaten duzuen ulertu ezinik —barre egiten dute.

—Pixka bat burutik jota gaude denari izena jartzen eta gure hiz-tegi propioa izaten, ezta? —jarraitzen du Ferrek.

Fer atetik aldendu da hirugarren solairuko coworkingera doazen bi pertsona pasa daitezen. Rut hizketan ari da zigarro bat biltzen ari den bitartean.

—Pixka bat bai... Beno, egia esan gustuko dut, ezagutzen ez nituen hitz ugari ikasten bainago... lehen ez nituen informazio-pakete mordo irekitzen egongo banintze bezala.

—Zer ondo, pozik zaude orduan — dio Ferrek irribarre batekin.

—Egia esan, bai, ilusioz heldu diot, beste enpresa batean banengo izango ez nukeen milaka gauzei buruzko ezagutza iristen ari zaidala ikusten dut... Ez dakit, hau gauzak egiteko modu guztiz desberdina da — zigarroa pizten du—. Eta beno, pozik nago hiriz aldatzean asko lagundu didalako hemen egoteak. Beste modu batera esanda, Wikitokiri esker etxe bat, lagunak ditut, ez dakit, familia bat bezalakoa da zenbait alderditan.

—Pozten naiz; izan ere, batzuetan harreran pixka bat huts egi-ten dugu —aitortzen du Ferrek lotsatuta.

—Beno, nik ez dut kezarik, hosta maitagarria da eta behar izan dudan guztian lagundu nau. Era berean, egunero hemen bazkaltzen geratzeak gauzek nola funtzionatzen duten ulertzen lagundu dit. Eta gero, tira, beti dago jendea zeinekin hobeto edo okerrago moldatzen zaren, normala da —Rutek zupada bat eman eta pentsatzen du zorte handia izan dela Fer topatzea eta zuzenean ez igotzea.

—Seriotxoak izan arren, jatorrak gara...—dio Ferrek ironiarekin.

—Egia esan, bai... Nahiz eta, tira, orain aipatzen duzula, batzuetan mundu guztia bere lanean guztiz kontzentratuta dagoela sentitzen dut eta agurtzeak ere lotsa ematen dit, ez gogaitzearren —Rut harritu egiten da gauza hauek esaten ari delako, ez daki oso ondo zergatik baina Ferrek konfiantza ematen dio.

—Niri ere gertatzen zait batzuetan. Baina, tira, zu momentu onean iritsi zara. Orain eredu aldaketarekin ari gara, eta tradizio batzuk berreskuratzen, pixka bat ahaztuta geneuzkan harremanak lotzeko; adibidez, *zozketatxoa* edo ostegunetako kañak... Badakizu zer den *zozketatxoa*, ezta? — eten eta begiratu egiten dio.

—Gutxi gora behera, bai. Sukaldean zintzilik dagoen panela ikusi dut, eta Anerekin bazkaltzea tokatu zait, baina oraindik ez dakit ondo ez zer ezta noiz egin behar dudan ere —sorbaldak jasotzen ditu.

—Ezer ez, *Sarean*-era joan eta jan besterik ez. Ideia zera da; tokatu zaizun pertsonarekin bilera batean landuko ez zenituzketen gauzez hitz egitea, eta ezer gutxi gehiago... Beno, bai, sukaldeko kartelaren kontua: bikote bakoitzak sormenezko itzulketa bat egitea proposatu zen, gainerakoek ikus dezaten, mantendu duten elkarrizketari buruzko zerbait. Adibidez, niri lehengo egunean Txusekin tokatu zitzaidan eta otorduan egin genuen gorpu bikaina eskegi genuen —Ferrek zigarroa amatatu eta paperontzi batera gerturatzen da zigarrromutxikina botatzeko.

—Ah, oso ideia ona.

—Bazaude Telegrameko bi kanaletan? —mozten du Ferrek.

—*Tentativa* izeneko batean nago. Zein da bestea? — harriduraz begiratzen dio.

—Hori laneko gauzena, espazioarena, proiektuena eta horrelakoena da. Bestea *Wikiplanes* deitzen den bat da, aisialdiaren ingurukoa; ekintzak, erakusketak, kontzertuak, manifestazioak, edo dena delakoa partekatzeke. Orain sartuko zaitut —mugikorra hartu du, baina gelditu egin da eta Ruti begiratu dio—. Tira, ondo baderitzozu, batzuek ez baitute nahi, Telegramek zarata handia sortzen duela esaten duelako —erantzun baten zain bezala begiratzen dio, baina ezer esan baino lehen, azaldu egiten du—: niretzat ondo dago, baliteke txorakeria bat iruditzea, baina bertan jendeak bere kontuak partekatzen ditu eta, batzuetan, ez dakit, ondo dago urtebetetzeak zoriontzeko edo batzuk egindako memeak partekatzeke, noizbehinka barre egiteko apartak direnak.

—Bikain, bai, sartu nahi dut —konfirmatzen du Rutek.

—Eskerrak esan dizudan —Ferrek mugikorraren pantailan bilaka dabil hizketan jarraitzen duen bitartean—; izan ere, esaten dizudana, batzuetan harreran huts egiten dugu eta ziurtzat jotzen dugu norbaitek hori kontatu dizula. Gertatu zaigu bi urtez egondako pertsonak kanal hori existitzen zela ez jakitea.

—Eskerrik asko —Rutek bere mugikorra begiratzen du taldean dagoela baieztatzeke. Begirada goratzen du pozik eta galdetzen du—: zu hasieratik zaude hemen, ezta?

—Bai, espazio komunaren esperimentu hau egiteko elkartu ziren ero horietakoa izan nintzen —irribarre egiten du atseginenez.

—Egia esan, espazioa egundokoa da —dio Rutek.

—Bai, ondo dago, ni alokagai zeuden lokalen kontu honi begira egon nintzen gainera —etenaldi bat egin du begirada galduarekin—. Urtebete eman genuen zer izan ginatkeen ikusteko elkartzen, eta, bitartean, gu identifikatzeko leku baten bila genbiltzan. Deustun bat ikusi genuen, beste bat Bailenen... Azkenean, leku hau agertu zen eta esan beharra dago fisikoki erakargarriena ez zela, erakunde-kontu handia zuelako, baina beno, bere abantailak zituela ikusi genuen; hortaz, ikusi genituen beste batzuk baino egokia goa zen alokairu bat negoziatzen hasi ginen udalarekin. Gainera, auzoan burutuko genituen proiektuen bidezko itzulketa egitearen kontua zegoen —eten egiten da—. Eta hori, hemen gaude, bost urte jada —mugikorraren pantaila begiratzen du—. Aizu, ia ordua da, eta *auzolana* baino lehen landareak ureztatu nahiko nituzke, hilabete honetan *baitokerra* naiz eta. Gora zoaz?

—Bai, goazen, urduri samar nago eta nahiago dut garaiz iritsi
—Rutek presaka itzali du bere zigarroa.

—Zure lehenengo *auzolana* da, ezta?

Rutek baietz dio motxilan eraikinaren atariko giltzak bilatzen dituen bitartean.

2. Agerraldia

Berta alarma jo baino lehen esnatzen da. Dutxan *auzolanerako* eraman behar dituen gauza guztien errepasso mentala egiten du. Gosaria prestatu bitartean bere pisukidea agertzen da sukaldean oraindik pijama jantzita duela. Biak gosaltzera esertzen dira.

Burua beste leku batean dauka Bertak, eta Maitek honakoa galdetzen dio:

—Ondo zaude?

—Bai, tira, urduritxo —Maitek jakin-minez begiratzen dio eta Bertak jarraitzen du—: Kontua da gaur ebaluazio-topaketa bat dugula eta ni bideratzaileetako bat naizela.

—Jo, neska, nik oraindik ez dut ulertzen zauden leku hori zer den.

—Bai, zaila da azaltzen eta ulertzen — pentsakor gelditzen da kafe-katilua eskuan duela—. Ez dakit, espazio bat baino gehiago da. Esango nuke batera joan nahi dugun pertsona taldea garela, nora joan oso ondo jakin gabe, baina aldi berean joateko erabakia hartuta.

—Uf, gero eta gutxiago ulertzen dut — aitortzen du Maitek, irri-barrez.

—Ia, gure burua definitzeko esaldirik laburrena Wikitoki elkarrekin pentsatzeko laborategia dela da —ondorioztatzen du adoretzu.

Bertak kafe pixka bat hartu eta ezpainak erretzen ditu. Maitek elkarrizketari ekiten dio ulertezintasun aurpegiarekin:

—Baina, nola? Gizarte zentro moduko bat zela?

—Bueno, ez, gu ekonomiaren eta lan partekatuaeren sorreraren inguruan antolatzen gara —Maiteri begiratzen dio eta azaltzen du—: zenbait kooperatiba, talde independente, elkarte, jende autonomo, kontratatu... gauden espazioa da.

—A, ados, modan dauden co-working horietako bat da —dio Maitek aulkian atzerantz etzanda sagar bat jaten duen bitartean.

—Ez zehazki.

—Kluster arraro horietako bat orduan — dio tematuta.

—Ezta, espazioa partekatzeaz gain, elkarlanean ere aritzen baikara. Talde-kudeaketan hartzen dugu parte, ez gara bulego batera lanera joaten soilik —Bertak hitz egiten du bere tostadak marmeladaz bustitzen dituen bitartean—. Hau da, coworking batean dirua jartzen duzu partekatutako espazio batean dagoen leku baten truke eta Wikitokin, dirua trukatzear gain, denbora ere jartzen dugu. Esan genezake talde baten kide bihurtzen zaituen eta sari gisa espazio bat eskaintzen dizun leku bat, eta guzti hau denbora eta lanaren truke, gehienbat behintzat. Izan ere, kuota ekonomiko oso txikia da. Beno. eta beste hainbat sari dituzu ere, ikusgaitasuna, adibidez.

—Baina ez dut oso ondo ulertu oraindik. Zerk batzen zaituzte, orduan?

Bertak tostada zati bat jan eta itxaroteko keinua egiten dio eskuarekin. Kafeari trago bat eman eta jarraitzen du:

—Ba gauza desberdinak antzeko modu batean egiten dituen jendea garelara. Batzen gaituena zera da, proiektuak, ikuspuntu komu-

na, balio batzuk partekatzen ditugula —etenaldi bat egin eta beste mokadu bat hartzen du—. Egiten dugunak baino, gauzak egiteko moduak batzen gaitu. Hau da, biltzarkideak, kolaboratiboak izateak; prokomunaren kontuak; kode irekiak... Guzti horrek batzen gaitu —hasperen egiten du—. Eta txikiak izan arren, batera gehiago egin dezakegunaren ideia horrek. Wikitokin *do it yourself* asko dugu... beno, ez, *do it with others* gehiago, guk geuk geure gauzak egitea, autogobernua sortzea —bere tostada amaitu eta mugikorren pantaila begiratzeko du mezuren bat heldu zaion begiratzeko.

—Uste dut ulertzen ari naizela —baieztatzen du Maitek—, kontua da gauza desberdinak egiten dituzuela, elkartu egiten zaretela eta laneko denbora inbertitzen...

—Bueno, tira —mozten du Bertak—, hori tentsio puntu bat da, batzuetan erritmoa motela delako, bai, adostasun orokor bat lortzeak denbora eskatzen baitu, gauzak hitz egin behar direlako —etenaldi bat egiten du pentsakor—. Azken finean, Wikitokin egotea luxu bat da, mundu guztiak ez duelako denbora, eta guk denbora handia ematen dugu, hori hala da... —begiak lurrean josten ditu. Isiltasuna dago eta Maitek elkarrizketari ekiten dio.

—Eta udalaren lekua izanda, alokairua garestia da?

—Begiratzeko duzunaren eta galdetzeko duzun pertsonaren arabera. Bilbao Ekintzarekin alokairu hitzarmen bat dugu, baina ez diogu geure buruari iruzur egingo, eurei ere gu hemen egotea interesatzen zaie. Azken finean, berrikuntzan, kulturean eta artean aritzen gara, gazteak gara, eta bueno... —sorbaldak jasotzen ditu.

—Suposatzen dut haientzat harro ibiltzeko zerbait zaretela zuek.

Maite kafea zerbitzatzeko jaikitzen da, Bertak gelditzen zaion tostada amaitzen duen bitartean.

—Aizu, beste zalantza bat. Gure artean, zu zergatik sartu zinen bertan eta ez coworking batean, non zure arloan besterik ez duzun lan egin behar? —galdetzen du Maitek berriro esertzen dela.

—Gonbidatu egin ninduten, elkartzen eta leku baten bila zeudenean deitu zidaten. Ni nire jardunbide artistikoa partaidetzako eta lankidetzako artearekin lotuta dagoelako sartu nintzen. Gainera, niretzat beti izan da garrantzitsua oinarri desberdin batzuetatik sortzea, teknikoki oso ondo ezagutzen duen diziplina duen, eta obra itxi bat eta galeriako gauza horiek ematen dituen artista bikain eta bakar —imintzio bat egiten du eskuekin—horrengandik desberdinez. Niretzat garrantzitsua da publikoarekin beste harreman bat bilatzea, eta horri buelta bat ematea sorkuntza artistikotik eta esperientzia artistikotik. Orduan, taldeka lan egitearen ideia hau partekatzen genuenez, niretzat puntu eta jarrai bat bezalakoa izan zen. Bat-batean, Wikitoki beste jende batekin gauzak egiten probatzeko eta hori nola egiten den birpentsatzeko aukera zen —funtsean Wikitokiri buruz hitz egitea asko gustatzen zaio, berezia sentitzen da.

—Beraz, zuretzat merezi duen zerbait da —dio Maitek.

—Oraingoz bai. Batzuetan nekatuago edo izorratuago nago, gogo gehiago edo gutxiagorekin, azken urteotan nire motibazioa asko aldatu baita, baina garatzen duzun proiektuan sinesten duzunean beste kontu bat da —hainbesteko pasioaz hitz egiten du,

Maitek ez duela begirada Beagandik alderatu—. Niretzat lan bat baino gehiago da, militantziarekin, konpromiso sozialarekin, orokorrean gauza guztiekin nahasten baita. Zure gauza izatean, ez dakit, partaide izatearen sentimendua duzu, proiektuaren parte zara, non gizakalitate eta irekitasun handia dagoen. Norbaitekin zerbait ez partekatu arren, guztiek egiten dute zu ulertzeko ahalegina, beti dago konfiantza-tarteren bat —gelditu egiten da eta lagunari konplizitatez begiratzen dio—. Nahiz eta, tira, haserretu ere egin naizen une batzuetan; izan ere, zera esaten nuen nik, beno, ni nire liburuaz, arteaz, hitz egitera etorri naiz, artearen inguruko moduak bilatzera; eta batzuetan nabaritu dut artistikoa dena gutxien delako kolaboratiboa den kontuetan jartzen delako arreta gehiena. Eta beno, artea erdirago egotea gustatuko litzaidake, hori egia da, eta noizbait ezintasuna nabaritu dut. Baina orain une liluragarrian nago, sortzeko eta nora goazen ikusteko unean —kafea amaitu eta gosaria jasotzen hasten da, oraindik eserita dagoela.

—Eta jendea aldatuz doa ala beti berdinak zarete? —jarraitzen du Maitek, ulertzen hasi eta jakin-min aseezina piztu zaiolarik.

—Ba, urte hauetan mugimendu handia egon da, egia esan —Bertak sukaldeko erlojua begiratu eta ezusteko aurpegia jartzen du—. Jo, neska, justu gaur goiz heldu beharra daukat eta zu galdezka —presaka altxatzen da.

—Okina izatea hobe zenuen, ba!

—Gaur egun okina izanda gauza ugari azaldu beharko ez bazenitu bezala; ore ama, glutena, zekalea —barre egiten dute.

—Ba bai! Tira, galdetegia beste momentu baterako utziko dut —adarra jotzen dio Maitek.

Bertak bere katilua eta platera harraskan utzi eta presaka ateratzen da sukaldetik.

Bertaren etxea lokaletik hamar minutura dago bizikletaz. Bidean *auzolana* prestatzen aritu ziren bileraren errepassoa egin du. Bere buruari galdetzen dio ea ideia ona izan ote den galderak alde aurretik bidaltzea, beldurra ematen baitio jendeak gauzak gehiegi pentsatuta eta prestatuta etortzeak. Denbora gehiegi egoteak kezkatzen du, Ekiaren eskema ordutegiarekin benetan zehatza zela gogoratzen duen arren. Bat-batean, San Frantziskoko gizar-te-etxean egin zuten topaketa datorkio burura, eta horrek zalan-tzan jartzen du dantza batekin hastea ideia ona izan ote den. Gogoratzen du aurkezpen ekintza eten behar izan zutela, bakoitzak mugimendu bat egin eta gainerakoek jarraitzeko eskatzean, Xabik burua galdu eta gainerakoek eskaileretan gora eta behera bera jarraitu ziotelako. Halaber, lorearen dinamika egiteko denbora izatea gustatuko litzaiokeela pentsatzen du, berarentzat oso garrantzitsua baita esaten ez dena askatzea, batez ere boterea edo denbora bezalako gaiekin. Bilera ostean *Arterrara* deitu beharko luketela gogoratu du, egindakoa kontatzeko eta talde eragilea noiz desagertu beharko litzatekeen galdetzeko.

Lokalera heldu baino lehen auzoko fruta-denda batean gelditu da partekatzeko zenbait gauza erosteko. Bere lagunak Mexikotik ekarri zion txokolatea ere darama.



3. Agerraldia

Hostak ia ordubete darama dagoeneko Wikitokin dokumentuak antolatzen.

—Aupa, egun on, Ainar!a!

—Egun on, Sergio! Zer moduz? Lehena zara.

—Eta gaur orokorrean baino beranduago nator. Badakizu gus-tuko dudala zortzietan lanean egotea, laneko sei orduak egitea eta nire auzora itzultzea. Kar-kar! —Ainararen mahaira gerturaten da Sergio.

—Puf, zortzietan! Nik ezingo nuke, patxadaz hartzea eta hemen bazkaltzea nahiago dut, arratsaldeko seietan atera behar badut ere.

—Beno, goiz altxatzen naiz, baina gero siesta botatzen dut beti —Sergiok berokia erantzten du.

—Ba ni gaur lehenago etorri naiz *auzolanarekin* Drive-a antola-tzeko astirik izango ez nuelako. Oraindik ez dut guztiz barneratuta Drive mundua, inoiz ez baitut honekin lan egin. Askoz operatiboa-go iruditzen zait, hori bai, gauzak momentuan nola egiten diren, aktak bi edo hiruren artean hartzea eta bilera ostean bost minu-tan akta eginda eta adostuta egotea. Zoragarria! Hala ere, karpeta nahaspila ona zeneukaten hemen... Adibidez, non dago egituraren dokua?

—Prozesuak, *auzolanak*... Ikusi duzu? —Sergio gerturatu egiten da eta pantaila seinalatzen du.

—A, bale... bai, eskerrik asko!

—Bai, *Wikikraziaren* eta zirkuluen kontuarekin hainbat gauza aldatzen ari dira. Eta diozuna, tira, batzuetan dokumentu kolaboratiboarekin zaude eta ez dakizu ezta nor ari den idazten pantailan daude kurtsore guztiekin—irribarre egin eta begiratu egiten dio—. Aizu, te bat prestatuko dut. Nahi duzu zerbait?

—Bai, yogi tea bat... chai, mesedez! —gogoz erantzuten du Ainarak.

Sergio bere mahaira hurbiltzen da Goierriko herri batean bere kooperatibarekin garatzen ari den lankidetzaz-parkearen proiektuaren karpeta batzuk uztera. Sukaldera bueltatzen da infusio biak prestatzera. Ura irakiten ari dela, ingurura begiratu eta pentsatzen du: “Joe, zein politak dauden landareak azkenaldian. Aurtengo *baitokerrak* lan handia ari dira egiten”. Katiluak bero bero daudela, Ainara lanean dagoen mahaira itzultzen da.

—Ai, bai ondo! Azkenean hotza nabaritzen da geldi bazaude. Tira, honekin amaitu dut —aulkitik altxatzen da eta katilua hartzen du—. Zer moduz atzo *Sareanen*?

—Nahiko ondo, egia esan —Sergiok zurrupada bat ematen dio bere infusioari eta jarraitzen du—: *Sareanen* parte hartzeko dinamika diseinatzen egon ginen. Bazkide ezberdinak nola egin birpentsatu nahi dute, parte-hartze maila ezberdinak, ekarpen ekonomikoa... hori guztia pixka bat birpentsatu nahi dute. Azkenean, *Enbaxadoreok* asko daramagu Wikitokin ikasten ari garetik, eta uste dut baliagarria izango zaiela beren lantaldeen funtzionamendurako, batzarretarako eta abar. Gainera, gustuko dut auzoa ber-

tatik egitea, azken finean Wikitoki hemen goian dago eta haiek bertan daude, plazan, kalera irekitako lokal batekin. Auzokideekiko eta auzoko erakundeekiko harreman zuzenagoa izateaz gain, alderdi kulturalagoa du.

Ainara zutik dago, bere mahaiaren kontra jarrita eta katilua eskuan duela. *Auzolana* baino lehen atsedena hartzea eskertzen du.

—Jende benetan jatorra da, lan handia egin dute urte hauetan espazioa, taberna, ekintzak... aurrera ateratzeko. —Joan den aste-ko *Sareanen* emandako kontzertuaren irudi bat datorkio burura—. Eta hori plaza hori batzuetan arrotza dela, eta jende asko ez dela gauzez handik joaten. Baina tira, hor daude behintzat —Ainarak gaiz aldatzen du—. Orduan, Sergio, ondo zaude zure *Enbaxadorearen* eginkizunarekin?

—Bai, bai, primeran, baina batzuetan denborarik ez dudala iruditzen zait. *Wikikraziaren* kontu honek gauza onak ekarri dituela uste dut, baina batzuk eginkizun asko hartzen ditugula eta ordu gehiegi egiten ditugula ere bai. Mugak jarri behar dira, noski, baina ez da erraza —urduri jarri da—: justu aurreko egunean Txemarik, *Remediestekoak*, komentatu zidan ea egonaldi baten koordinazioa egin nahi nuen, baina orain hasi behar banuen ezin nuela esan nion; hortaz, beste norbaitekin hitz egingo dute... —dio kezkatuta.

—Baina, barkatu, ez dut ondo ulertu zer-nolako zerikusia duen horrek *Wikikraziarekin* —moztu du Ainarak.

—Beno, ikusten dut aurreko biltzar-sisteman, batzarrean zerbait erabakitzean lantalde horrek bere gain hartzen zuela eta bertan zeudenen artean banatzen zela lana. Orain zirkuluak erabaki-tal-

deak bezalakoak dira; egin beharreko lanak erabakitzen dituzte eta egokienak iruditzen zaizkien pertsoneri esleitzen dizkiete. Baina bertan erabakien eta gauzatzearen artean distantzia bat sortzen dela uste dut nik. Eta iruditzen zait bertan dagoela erronka, eginkizun horiek esleitzeko moduan eta hautatzen dituzten pertsonetan —konturatzen da negatibo ari dela jartzen eta ez du hori gustuko—. Beno, azkenean *Wikikraziaren* kontu honek bere zailtasunak ditu, baina hala proba ona dela uste dut, ezta? —Ainara begiratzen du jakin-minez—. Zuk zer uste duzu?

—Beno, ni biltzar-girotik nator, horizontaltasunetik, denok elkarrekin erabakitzetik, do it yourselfetik, non proposatzen duenak dena egin behar duen... niretzat *Wikikraziaren* kontu hau al-daketa handia da —irribarre egin eta baiesten du—. Baina Wikito-ki-ren aurreko batzar-formatua bera ere ez zen ordura arte bizi izan nuenaren bezalako. Bilerak erraztearen kontua dela eta esaten dut, hemen oso barneratuta baitago, baina bileren sormenezko parte berria da niretzat. Askok gustatzen zait. Bileren hasieran eta amaieran taldekideak nola dauden ikusteko denbora eskaintzea primeran iruditzen zait, landuko denarekin zerikusia ez izan arren.

—Bai, hausnartzeko eta nola sentitzen zaren metaforekin ere esateko aukera izateak beste ikuspegi bat ematen die bilerei —azaltzen du Sergiok irribarre batekin bekainak igotzen dituela.

—Eta erabakiei buruz esaten zenuenarekin ildotik—jarraitzen du Ainarak tonu serioago batekin— uste dut hemen botereak ematen digun beldurrarekin lotuta dagoela. Tira, gutako askori boterea izateak ematen digun beldurrarekin, eta, adibidez, erabaki ekonomikoak hartzearekin edo norbaiti zerbait bidaltzearekin. Nik ora-

indik ez dut argi hau guzti hau nola egiten den, baina hasieratik daramaten Fer edo Berta bezalako jendeak ere zalantzak ditue-
nez, ba eroso sentitzen naiz, oraindik guztiok ari baigara sistema
honetara ohitzen. Orduan lasai nago, zalantzak sortzen direnean,
orokorrean, inork ez dakielako nola erantzun eta “nire ustez hala
edo hola da” izan ohi delako erantzuna.

—Ba bai. Horrela gabiltza guztiok, ikasitakoa desikasiz ikasten
ikasiz. Kar-kar!

Denbora bat pasatzen dute aho-korapiloaz barrezka, eta hitz
berriak asmatzen dituzte *Wikikrazia* eraikitzen ari diren prozesua
islatzeko, metodologiarekin kolektiboki esperimentatzen duten bi-
tartean.

—Badaukat! —baieztatzen du Sergiok bihurri—. Harrapatzen
ikastea bezala izango litzateke, hartzen, zuk maila pertsonalean
ikasi eta wiki moduan ikaskuntza harrapatuko bazenu bezala, ikas-
kuntzak harrapatzen ikastea. Ai, ama! hieroeroglifikoa dirudi... —
atea entzuten da.

—Tira, goazen, *auzolaneko* jendea heltzen dago eta.

Auzolan Talde-dokumentua

Wikikrazian esperimentatzen

Bilbo, 2019ko azaroak

Hau *auzolan* bat dela diote topaketa honen bideratzaileek, eta horrela deitzen dute, Wikitokin guztion onerako lan egiten duen auzotasun moduko bat garelako. Azaroko goiz honetan deitu gaituzte, *Wikikrazia* deitzen dugun horrekin hamaika hilabetez esperimentatu ondoren egitura berria sendotu eta findu behar dugulako.

Irekiera gisa *Wikikraziaren* esparrua gogorarazi dugu, garrantzitsua iruditzen zaigulako denok nola funtzionatzen duen ulertzea, eta badakigu jende berria oraindik pixka bat galduta dagoela hainbesteko konplexutasunarekin.

Topaketa honetarako hausnarketa-proposamena gure gorputzak sentipen eta balorazioen neurgailu bihurtzea izan da, non es-tutasunei eta hodeiei ere ahotsa ematen zaien. Horretarako, gure lokaleko areto nagusia polo negatibo eta positiboko semaforo bihurtu da, bai horizontalean bai bertikalean, eta bertan geure gorputzekin geure burua kokatzen joan gara, bakoitza zekarren informazioarekin, nahiz eta beste batzuegatik kutsatzen utzi eta lekuz mugitu garen. Hori guztia, batzuetan hainbeste kostatzen zaigun *Komunikazio Ez Bortitzaren* ibilbideari jarraitzea ahaztu gabe, eta interpretazioak, pentsamenduak, nahiak eta eskakizunak gertakariekin, sentimenduekin, beharrekin eta eskaerekin ordeztzea.

Horrela, modu positiboan baloratu dugu *Wikikrazia*, taldearen beharrak entzunak izan direla aitortuta, lasaitasuna eta motiba-

zioa ematen diguna, hiztegi emozionala praktikatzen laguntzen diguna eta erosoago eta barneratuagoak aukera ematen diguna. Badakigu aurrerapen egokia duen prozesua izan arren, oraindik entrenamendua behar duela.

Uste dugu zirkuluetan egiten den lana barne antolaketa errazten ari dela, egitura argiago dagoelako eta bakoitzak hobeto dakielako zein den bere ardua. Non gauden ulertzen eta gainerakoetan konfiantza izaten ere laguntzen digu. Kide batek, ordea, ez du uste antolakuntza hobetu denik baina aitortzen du jendea alaiago dagoela eta horrek jarrera hobetzen duela.

Uste dugu egitura berria eraginkorragoa dela erabakiak hartzerakoan, pentsatzeko eta erabakitzeke denbora eta lasaitasun handiago dagoelako, entzun daitezkeen ahots gehiago daudelako eta erabakiak partekatuagoak eta informatuagoak direlako. Hala ere, oraindik kostatzen zaigu denbora hartzea nola sentitzen garen adierazteko, eta oraindik ere antsietatea sortzen digu objektioen errondan, hasiera batean behintzat, soilik bai ala ez esan ahal izateak, argudiatzeko erronda amaitu arte itxaron behar izanez.

Bereziki kezkatzen gaituen zerbait boterearen gaia da, bere konplexutasun eta maila ezberdinengatik, eta horregatik geure buruari galdetu diogu ea egitura berri horrek boterea eta ardurak banatzea errazten duen. Hemen gure aniztasun guztia hedatu dugu. Kide batek prozesuaren ideia ekarri du, denborarena, lehen de facto egiten zuten pertsonak zeregin batzuetarako aukeratzen jarraitzea bultzatzen gaituen inertzia bat dugula adieraziz. Pentsatzen dugu ez dela sistemaren arazo bat, oinordetzan jasotako inertzia horrena baizik.

Beste kide batek adierazi du ekintzaren, gertaeren, datuen eta emaitzen hizkuntza gailentzen dela, eta zenbat eta diskurtso-gaitasun handiagoa izan, zenbat eta ezagutza gehiago hedatzen jakin, eta zenbat eta sormen handiagoa izan, orduan eta botere gehiago biltzen duzula. Badago jendea gainerakoak baino partaideagoa dena, edo ideiak ekartzen dituen edo buru-belarri aritzen dena, eta *Wikikraziak* ez du horrek ematen dizun boterea konponetzen. Esperientziak ere boterea eskaintzen duela esan dugu, baina kide batek zehaztu du orain ahots gehiago entzuten direla eta gero eta jende gehiagok biltzen duela esperientzia. Zerbait egiteko hautagaiak aukeratzean, ondo legoke esperientziaz gain potentzia ere gehitzea.

Badakigu orduak eskaini ezin badizkiozu galtzen zoazela eta lanerako gaitasunak boterea ematen duela, baina hori kiroltasunez onartzen dugu, denbora gehiago eskaini diezaiokeen jendeak ez baitu garenaren kontrako zerbait egiten, eta egin nahi badu, hori zalantzan jartzea tranpa bat izan daiteke.

Badakigu *Wikikraziak* ez duela esan nahi orain denok botere bera dugunik, ezta inertzia batzuekin amaitzen denik ere, iritzi bategen bestearen eragin bera ez izatea bezala.

Mimika keinu batekin adierazi dugu ere nola sentitzen garen bakoitzak garatzen duen tokian, eta denetarik egon da. Egiten ditugun rol anitzetan eroso daudela aitortzen dugun lankideak, hainbeste gauza egiteko denbora faltagatik zapalduta edo itota dauden lankideak, edo ardua gutxiago izateagatik eta orduak betetzera ez iristeagatik deseroso sentitzen diren lankideak.

Horrek aipatzen ez den baina airean dagoen “gauza” hori izendatzera eraman gaitu; lan batzuk egin behar direla eta beste batzuek gauzatu behar dituztela erabakitzeak sortzen digun tentsioa. Geure buruari galdetzen diogu ea zerbait eskuordetu dakioken erabaki ez duen norbaiti, nola eskuordetu daitekeen edo zenbat eskuordetu daitekeen. Bezero-hornitzaile logikatik atera nahiko genuke honetan, ez ulertzea egin dadin agintzea bezala, gogoan izatea ez ditugula langileak mahai azpian, baizik eta gu garela hori egiten dugunak. Eta horregatik uste dugu proposamen bat erabaki baino lehen nola garatuko den eta nork garatuko duen pentsatu behar dugula.

Denboraren kudeaketan eraginkortasuna gai zaila da, eta denok ez dugu berdin ikusten. Uste dugu elkarrekin lan gehiago egiten dugula, zirkuluen helburuak betetzen doazela, baina badakigu goiz samar dela geure buruari galdera hori egiteko. Gure ustez, egiturak zereginak identifikatzen eta horiek egiteko denbora ateratzen laguntzen du; denok jabetzen gara Wikitoki nola dagoen, eta horrek ere eraginkortasuna dakar. Batzuentzat, ordu gehiegi ematen ditugu bileretan, eta horrek denbora kentzen du zeregin zehatzak egiteko. Kide batek kontu historiko bat ekarri du gogora, norberaren autoerregulazioaren eztabaida eta *denbora bankuari* ematen diogun erabilera, bere potentzial guztiarekin erabiltzen ari ez garen baliabidea baita. Bakoitzak dituen eginkizunei buruz eta bakoitzak eskaini behar dituen orduei buruz talde-ezagutza falta zaigu. Eredua sofistikatu beharko litzatekeela uste dugu, denborak nola banatzen diren kualifikatu.

Kide batek prozesua porru batekin alderatu du, non denbora edo eginkizun gainkarga porruaren alde garratza izango litzatekeen

eta alde goxoa Wikitokiri buruzko talde-kontzientzia handiagoa dugula eta boterea banatuagoa dagoela. Interesgarria litzateke porru osoaz gozatzeko gai izatea.

Azkenik, aldaketarako proposamenak egiteko aukera eman zaiagu, ezer ez baita aldaezina. Esate baterako, rolak txandakatzea, hala nola idazkaritzakoa, ezarritako urtebete edo bi urteak baino lehen; bakoitzaren mahaian semaforo edo kontagailu bat izatea, non mundu guztiak ikusten dituen erabilgarri dituen orduak; *denbora banku* berria erabiltzeko irizpide partekatuak izatea; edo zirkuluen bilerak laburragoak izatea eta bilera gutxiago egitea, besteak beste.

Topaketa honetan, *Wikikraziaren* hasieran genituen hipotesiak baloratu ditugu, eta konturatu gara guztia ez doala bide onetik, gauza gozoak daudela eta beste batzuetan trabatuta gaudela, batzuetan antzinako mamuak itzultzen direla ere, baina horretarako gaude hemen, zailtasun horiek nola gainditu ditzakegun ikusteko eta aurrera jarraitzeko. Izan ere, zerbaitetaz ziur bagaude, nora iritsi nahi dugun jakiteko non gauden jakin behar dugula da.

Topaketa- eta balorazio-goiz bizia izan da, kontu pertsonalen eta kolektiboen artean nabigatuz. Bertan, emozioak eta gorputza presente egon diren leku desberdin batetik adierazi, esan edo ez esan, entzun eta ikasi ahal izan dugu, une deserosoak direla medio. Daukaguna eta sortu duguna ospatzeko gune bat, gure galdera eta zalantzekin, horrek esan nahi duelako ez gaudela geldi, bizirik gaudela eta guztiontzat hobeto funtzionatuko duen zerbaiten bila gabiltzala.

4. Agerraldia

Auzolanaren ondoren sukaldea mugimenduz betetzen da. Espaziotik mugitzen eta luzatzen diren gorputzak, tuperren edukia plateretan botatzen dituztenak eta janaria mikrouhin-labeetan berotzen dituztenak. Mahai-tresnak, ur pitxerrak eta edalontziak mahai gainean jartzen dituzte. Beti dago partekatzeko fruta freskoa erdialdean. Postrerako udareak jengibrearekin eta ardoarekin berriak dia. Batzuk kanpora doaz bazkaltzera, baina gaur normalean baino *wikitoker* gehiago geratu dira.

—Ez gara ezta bi ordu eserita egon, baina mentala den guztia askatzeko talde-dantza faltan bota dut amaieran.

— Nola gustatzen zaizu dantza egitea, Irantzu! Bai, egia esan, ondo legoke askeago mugitzea. Eta zuk zer jarriko zenuke? Hainbeste gustatzen zaizun pianista hori? Nola zuen izena?—galdetzen du Anak.

—Keith Jarrett. E, ba bat etorriko liratekeen abestiak ditu. Baina tira, Somadamantinaren bat izan zitekeen eta Wikitokitik jariatzen jarriko ginateke.

—Ai, neska, nik Berri Txarrak nahiago tentsio guztiak ateratzeko, eta gero, nahi baduzu, hodei batean sartu gaitzke... —Anak besoak mugitzen ditu ur azpian balego bezala mikroaren kanpainatxoa jotzen duen unean—. Janaria erreko zait eta ni hodeian, kar-kar!

Miriam eta Alex hainbait poltsekin agertzen dira. Janari bila joan dira auzoko jatetxe marokoar batera. Poltsetatik enpanadillak eta barazki- eta arkume-kuskusa ateratzen dute, eta zenbait plateretan banatzen dituzte.

Irantzu Anaren ondoan esertzen da, solasaldia jarraitzeko.

—Badakizu? Bilbon dantzan egiteko horrelako zerbait egotea gustatuko litzaidake, non beste modu batean harremanak izan eta parte-hartzailea dena. Ez dakit, uste dut auzoan horrelako zerbait antolatzea gustatuko litzaidakela, gorputzetik, dantzatik eta zain-tzetatik abiatzen den...

—Aizu —mozten du Anak—, ba zerbait proposatu ahalko zenuke *Gau Irekian*. Uste dut aurten ez dugula ezer antolatu. *Sareaneko* jendearekin hitz egin ezazu, ziur hemen, Wikitokin, esperimenteren bat prestatu daitekela.

—Hemen ez dugu ezer oraindik? —galdetzen du Irantzuk hun-
kituta—. Auzotik egongo diren gauza mordoekin, iazkoa bezalakoa bada... Oso gustuko izan nuen, dena dendetatik, tabernetatik eta tailerretatik artistaz betea, kontzertuak, erakusketak, performan-
ceak... —Anaren besoa astintzen du—. Zerbait egin behar dugu. Ni-
rekin prestatzera animatuko zara?

—Noski, bikaina izango litzateke. Ziur zerbait polita sortzen dela.

—Bai, nik dantzatzeko moduez gain harremantzeko modu beza-
la ikusten dut. Eta Wikitokirentzat auzoan presentzia sortzeko bes-
te modu bat izan daiteke. Bitxia ere bada, esango didazu Wikitokik
zer-nolako zerikusia duen.... dantzarekin?!

—Wikitoki, elkardantzarako espazioa! —barre egiten dute.

Marta, Silvia eta Hasier mahaiaren muturrean esertzen dira. Er-
dian Laura eta Guille daude.

—Zer ondo! Gaur asko gara —dio Martak.

—Orokorrean gutxiago egoten zarete? —galdetzen du Laurak.

—Bai, orokorrean Ainara eta gu hirurok egoten gara. Baina egunaren arabera —erantzuten du Martak.

—Ni aurten *mahaierra* naizenez astean behin etortzen naiz gutxienez, asteartetan, eta euskara ikasten nagoenez aurreko egunean euskaraz aritu ginen modu naturalean. Niretzat guztiz berria izan zen hori, lehen euskara ez nekielako eta, “hostia, bai ondo hemen” pentsatu nuen; orduan, ezarri genuen asteartetan euskaraz bazkaldu eta hitz egingo genuela —partekatzen du Miriamek.

—Oso une polita da; izan ere, gai-zerrendakoak ez diren gai gehiago agertzen dira, eta bizitzako gauzez edo bileran ez dauden gauzez hitz egiten dugu gehienbat —gehitzen du Silviak.

—Bai, aste honetan —gehitzen du Hasierrek— jardunaldi feministen inguruan pila aritu gara, adibidez. Marta bertan egon zen eta feminismoaren dekonolizazioaren inguruko eztabaidez edo genero inklusiboaz hitz egin zigun...

—Hara, hori korapiloa —mozten du Silviak—, ni ez naiz eroso sentitzen gazteleraz “les amigues” esaten. Ez dakit, behartua ikusten dut eta femeninoan hitz egitea nahiago dut.

—Nik ere femeninoa erabiltzen dut hitz egitean, baina idaztean x jarri ohi dut —komentatzen du Hasierrek.

—Egia, baina irakurleek ez dakite nola irakurri x hori eta itsuei ez zaie heltzen —azaltzen du Martak—, horregatik irakurri daitekeen hizkia jartzearen kontua. Aparta dena da hizkuntza aldatzen doala... RAEagatik ere!

—Beno, kontaiguzue “vosotres” zelan doan zuen egonaldia? —galdetzen die Silviak Laura eta Guilleri.

Laurak ura edaten amaitu eta erantzuten du:

—Ba primeran. Hemendik topatu ditugun hitz berri guztiak ikasten ari gara, ez da hala Guille?

—Bai, beno, ikusi zenuten bidali genizuen gutuna bitxikeriaz idatzi genuela —dio sardexka platerean uzten eta gorri jartzen dela nabaritut.

—XX. mende hasierako antropologoak bazinete bezala, ezta? —adarra jotzen du Alexek jateari utzi gabe.

—Kar-kar! Bai, hori zirudien, ez da hala? Beno, Fraggeletan oinarritu ginen gehiago. Gogoratzen duzue? —pertsonek batzuek baiez-tatu egiten dute, jostari—. Bat kanpo-munduan bizi zen eta beti postalak bidaltzen zizkien. Matt osabaren postalak. Bideo guztiak ikusi genituen! —aitortzen du Guillek.

—Niri benetan polita iruditu zitzaidan —aitortzen du Hasierrek—, Wikitoki nolabaiteko hoztasunetik kontaktzen baitugu beti: Wikitoki hau da, beste hori da. Eta bat-batean azaletik, gertutasunetik sortzen denak harritu egiten gaitu. Eta aldi berean, gorputza arraro uzten dizu, alde batek, gertutasuna dela eta, lotsa edo ematen duelako. Baina tira, oso gustuko izan nuen.

—Nik oraindik ez dut oso ondo ulertzen egiten duzuen. Kontakizunaren kontua gutunak izango dira? —galdetzen du Miriamek jakin-minez.

—Ez, beno, momentuz ez dakigu zein izango den kontakizuna-

ren forma, baina Itsaso eta Ainararekin erabaki genuen gutunak direla prozesuaren berri emateko eta sareetara igotzeko modua— argitzen du Guillek—. *Wikiriki* deialdian aurkeztu genuen proiektua ez fikziosko literatura-kontaketa bat egiteko zen, Wikitokiren antolakuntza- eta harreman-kulturari buruzko ikerketa-prozesu batetik abiatuta.

—Esperimentua da nolabait, prozesuan gure jakintzak nahastuko ditugulako. Guille soziologoa da eta nik narrazio-terapia lantzen dut —zehazten du Laurak.

—Hara, narrazio-terapiaren kontu hori nonbait entzun dut nik —mozten du Silviak.

—Beno, egia esan —jarraitzen du Laurak—, terapia baino gehiago narrazio-jardunbideak erabiliko ditugu testuinguru komunitarioetan. Narrazio-jardunbidea laguntza terapeutiko, pedagogiko edo, kasu honetan, komunitario modu bat da, pertsona zein komunitate guztiak euren bizitzetan adituak direla onartzen duena. Hau da, komunitate guztiek izan ditzaketan zailtasunei aurre egiteko garrantzitsuak diren jakintzak eta gaitasunak dituztela.

—Jakina, orduan deialdian eskatzen zenituzten zenbait gauzekin lotuta zegoela ikusi genuen. Gainera, narrazio-jardunbidea antropologiatik gertu dago, ezta? —dio Guillek Laurari begira—. Hortaz, antropologiaren edo soziologiaren tresnak erabiliko ditugu, besteak beste, obserbazio parte-hartzailea, banakako elkarrizketak, eztabaida-taldeak... baina beste ukitu batekin. Adibidez, elkarrizketen galderak, beno, solasaldiak deitzea nahiago dugu, orduan, solasaldietan landuko duguna bilera batetik atera da, non Wikitokiko zirkulu guztietako pertsonak zeuden.

—Gainera, hori guztia dagokigu —gehitzen du Laurak, konplizitatez—; izan ere, gu, bakoitza gure bizitzan, kolektiboetan, batzarretan, kooperatibetan... egon gara, eta lan kolektiboak dakartzan zailtasunak bizi izan ditugu —Guillek baieztan du eta Laurak jarraitzen du—: Eta ondoren, niretzat garrantzitsua da narrazio-jardunbideak gure esperientzia politikoa dela onartzen duela, eta tesuinguru sozialetan erregistratua dagoela, botere-harremenez eta diskurtso menderatzaileez zeharkatuta daudenak.

—Ikusi duzue, orduan, boterearen kontua asko lantzen dugula. Beti egin dugu. Biltzarretan beti zegoen gai hori mahai gainean eta horregatik soziokraziaren kontua ere asko interesatu zitzaigun, eta horri buruz hausnartzen jarraitzen dugu —Miriamek etenaldi bat egin eta begiratu egiten ditu—. Zer iruditu zaizue *auzolana*?

—Oso interesgarria, benetan —erantzuten du Laurak hunkituta—. Dena, erraztedinamiketatik azaldu duzuen kontuetara arte. Honekin, adibidez, talde dokumentu bat egingo dugu, *auzolanean* esandakoa islatzen duen kontakizunen bilduma moduko bat. Berzitasuna da autoretza taldearena dela, taldearen hitzak eta ahotsak errespetatuz. Hau da, funtsezkoena esaten dena da, ez nork esaten duen. Orokorrean, lan osoa aukerak irekitzen dituzten pauso segida bezala ulertzen da. Ez zaigu komunitate idealak edo idealizatuak sortzen laguntzea interesatzen. Asmoa da esperientziari buruzko hausnarketan laguntzea eta komunitateak nondik joan nahi duen zehazten laguntzea, hau da, ezaguna eta familiarra denetik ezagutu, egin eta izan daitekeenera nola mugitzen den zehazten laguntzea.

—Bai interesgarria! —oihu egiten du Alexek.

—Eta kontakizuna horrelakoa izango da edo pertsonaiak dituen ipuin baten moduan, non guztiok agertzen garen? —galdetzen du Silviak ilusioz.

—Gutxi gorabehera, bai eta ez —zehaztu du Guillek udare bat jengibrearekin bere platerean jarri bitartean—. Hau da, esan dezagun, ikerketaren emaitzak aurkezteko hautatu den modua kontakizuna dela. Proposamenaren sormen handieneko zatia da. Laurak badauka modu honetan idatzitako liburua eta horretan inspiratu gara betiko txostena ez egiteko eta jende gehiagorentzat ulergarria izan dadin.

Laurak baieztatu egiten du, bere platera Guilleri ematen dio udare bat jar diezaion, eta azaltzen du:

—Bai, libururako berrogeita hamabost pertsona elkarrizketatu nituen eta euren amodiozko harremani buruz galdetu nien, eta ondoren zenbait istorio eraiki nituen. Horiek dira liburuan agertzen direnak. Batzuetan istorioa bera da baina fikziora moldatuta, beste batzuetan nahasketa bat da. Gutunak, elkarrizketak, hausnarketak eta barne-bakarrizketak daude. Egia esan, askotarikoa da oso. Eta ez-fikziozko literaturako kontakizunak diren arren, dokumentu kolektiboak sortzeko terapia narratiboaren metodologian oinarrituta daude, hau da, pertsona guztien ahotsen aniztasuna jasotzen dute, eta haien jakintza eta trebetasunak islatzen dira. Horrelako zerbait egin nahi dugu egoitza honekin.

—Hori da —jarraitzen du Guillek—. Tira, bada pena ematen digun eta proiektuan jada jarri genuen gauza bat, euskarari buruz lehen aipatu duzuenarekin lotuta, gu ez garela trebatzen sakontasunez hitz egiteko edo idazteko moduan. Amorrua ematen du,

alde batetik, Iruñeakoa naizelako eta nire maila oso baxua delako eta egunerokotasunean erabiltzen ez dudalako eta, bestetik, narrazio-jardunbideetan enfasi handia jartzen delako pertsonen adierazteko modua eta hizkuntza popularra errespetatzean.

—Beno, hemen ez dugu asko erabiltzen —argitzen du Martak—, baina bultzatzen saiatzen gara euskarari komunikatzen garen batzuk bagaudelako eta besteren bat, Miriam adibidez, ikasten dagoelako. Iaz, adibidez, egonaldietako bat memeak euskaraz sortzeko izan zen.

—Oso gustuko ditugu memeak, ezta? Kar-kar! —eransten du Hasierrek begi-keinua eginez.

—Begira, baten bat egin genezake definizio-zeremoniarako —iradokitzen du Laurak.

—Eta zer da hori? —galdetzen du Martak harrিতa.

—Beno, jakina, aginduko dizuegun lehenengo gauza testu bat da, aldatu, zuzendu, zabaldu, balidatu eta abar egin dezazuen, azkenean zuen kontakizun kolektiboa baita. Narrazio-jardunbidean, definizio-zeremoniari deritzo komunitatera eta gonbidatu nahi dituzuen pertsonetara irekitako ekitaldia egiteko uneari, testua zuzendu ondoren burutuko duguna. Bertan, behin betiko kontakizunaren ale inprimatuak banatu eta irakurriko ditugu, eta amaiera-ospakizuna izango dugu —azaltzen du Guillek.

—Festa bat! E, bai, festa bat falta da Wikitokin, oso serioak gara eta aurten oraindik ez dugu bat bera ere egin — dio Hasierrek.

Bazkalostean, zenbait *wikitoker* kafe bat hartzera eta erretzera ateratzen dira goiko plazara. Wifia erabiltzeko atera gerturatzen diren gazteekin hitz egiten du Ferrek.

Kafea hartzen duten bitartean, Miriamek eta Alexek Itziarrek esan duen horri buruz hitz egiten dute; gatazkak kudeatzeko espazioa ez egoteari buruz.

—Egia da denbora guzti honetan inork ez duela hori proposatu —dio Miriamek zeharo kezkatuta.

—Nik uste dut ez dugula gatazka oso argirik, hau da, ez dakit, ez erasotzeko akordio moduko batean gaudela, etxeko marka moduko bat dela —hausnartzen du Alexek.

Miriamek kafearen zurrutada bat hartzen du begirada zeruertzean duela eta berriro ekiten dio:

—Bai, baina horrek ez du esan nahi ez daudenik, gero ateratzen baitira. Ez dakit, bat joaten denean edo erabaki indibiduala hartzen duenean, uste dut landu ez den gatazken sintoma dela, gero bazkarietan edo elkarrizketa informaletan azaleratzen direnak. Batzuetan jendea entzun eta esaten duzu, jo, pertsona hau ez dago batere pozik... —Miriamek Alexi begiratzen dio erantzun baten zain.

—Bai, hori bai, baina ez dakit, nik esaten dudana da azpian zerbait dagoela, baina ez duela energia nahikoa egoera guztiz sutzeko... —dio Alexek.

—Edo ikusteko eta den moduan izendatzeko gogo gutxi dugula, egon baitira biraka geratu diren gauzak, orduen monetizazioa edo tankerako kontuak adibidez —Miriamek tonua pixka bat igotzen du.

Alexek zigarro bat piztu eta jarraitzen du:

— Bai, bai, noski, baina nik diot horiek ere ez direla taldea eraginik gabe uzten duten gauzak, eta horregatik alde batera uzten ditugula. Ez da gatazka potolorik edo traumatikorik izan...

—Aizu —mozten du Miriamek—, baina hori pentsamolde super estrukturalista da, ezta? Dena antolatuta badago ondo funtzionatuko duela pentsatzea. Eta ez du zertan horrela izan, kontuan hartzen ez ditugun gauza ugari daude.

—Ez dakit, esan nahi dudana da prozesu batean gaudela —eten eta serio begiratzen dio—. Ez dut esaten egindako lana denik, baikik eta gauza batzuk ez direla egiten, agian taldea ez dagoelako prestatuta, ez duelako tresna nahikorik. Esaten dudana da, agian, gatazkak ez handitzea egina daukagun lan bat dela, muga bezala ikusi beharrean gatazkaren adierazpen bortitza txikitzeko gaitasun gisa ikus dezakegula, beste modu batean kudeatzeko.

—Ez dakit, nire ustez Itzik dioena garrantzitsua da; zaintzarako eta gatazkak kudeatzeko espazioa sortzea.

—Bai, argi dago, nire ustez ere bai.

Miriam pentsatzen geratzen da komunean dagoen pintadaren inguruan, honela dioena: “ados ez egoteak ez du zertan esan nahi oker gaudenik”.

Pixkanaka-pixkanaka, *wikitoker* bakoitza bere lanpostura itzultzen da. Ordu honetan eguzki argi gutxiago dagoela nabaritzen da eta argiak piztu behar dituzte.



5. Agerraldia

Arratsaldeko zazpiak dira eta zenbait *wikitoker* lokaletik atera dira *Sareanera* joateko. Gaur hilabetearen lehenengo osteguna da eta *auzo garagardoaren* unea heldu da. Ainarak mundu guztiari esaten dio harantz abiatuko dela. Ferrek dio gauza bat amaitu behar duela eta unetxo batean joango dela. Geratzen den bakarra da.

Bidean, botere bereziak dituzten jendez osatutako erakunde sekretu bati buruzko serie batez ari dira. Irunek gomendatu zien liburua bat ere aipatu dute, harremanetan ematen diren patroiei eta ezartzen diren komunikazio-jokoei buruzkoa. Bertak bere istorio artistikoentzat erabiltzen duen Peru izeneko tamaina naturaleko panpina bahiketarik agertu dela bromatan diote, eta barre egiten dute Wikitokin dirusaria eskaintzen jarri zituen kartelak gogoratzen dituzten bitartean.

Mariaren Bihotza plazara heltzen doaz eta, ohi bezala, ordu horretan jendez gainezka dago. Beranduago, gauean, beste kontu bat izaten da. Diote erakundeek auzoa alde batera utzi dutela garbitasunari, lokal hutsei, pizkunde ekonomikoari dagokienez; gauean plaza horrek beldurra ematen duela, eta azkenaldian polizia maiz agertu dela. Diote ez dutela gentrifikatu dadila nahi, itsasadarreko eremuan gertatzen den bezala. Wikitokin askotan eztabaidatu dute gentrifikazio prozesuaren inguruan, badakite nolabait horren partaide direla, askok auzoan bizi den jendea baino ahalmen ekonomiko handiagoa dutela eta bertan alokatzean horretara laguntzen dutela. Baina, aldi berean, lanean ari dira auzoaren aldetik erresistentzia mekanismoak sortu daitezen. Batzuetan muga batean ikusten dute euren burua, artean ibiltzen den jendearentzat

hippyak direlako eta giza-ingurukoentzat modernoak. Baina tira, ez dute euren burua iruzurtzen, badakite espekulazioaren eta erakundeen artean estrategia bat dagoela honelako auzoetan elementu kulturizatzaile alternatiboak sartzeko, beste irudi bat emateko, eta nahiz eta Wikitokik autonomia izan eta joko horretatik pixka bat atera, kontuz joan behar dutela.

Sarean tabernaren barruan ez dago jende askorik. Artisau garagardo batzuk eta ardoren bat eskatzen dute. Itsasorekin egiten dute topo eta Ainara berarekin doa *Sareanen* data bat erreserbatzera *Talde-kontakizun bat* ospatzeko.

Ekia Anerengana gerturatzen da, barran aulki batean eserita dagoena, eta sorbaldeetatik beso bat pasatuz esaten dio:

—Sekulakoa da gaur etorri izana, aspaldi kañak hartzen gertzen ez zinela, ezta?

—Bai, tesiarekin giza-harremanak alde batera utzi ditut, egia esan nire bizitza pertsonala gutxitu dut... Zu normalean gelditzen zara? —galdetzen du Anek besarkada itzuliz.

Ekia bere ondoan esertzen da aulki batean eta erantzuten du:

—*Auzo garagardora* bai, baina ez noa gauza askotara, azken aldian lan handia egin baitugu kanpoan —asperen egiten du—. Egia esan, aste batzuetan goiz batez besterik ez naiz egoten Wikitokin.

—Bai, ni azken aldian ez nator asko... —Marta batzen zaie beste aulki batekin. Aneri begiratzen dio eta ironiaz esaten dio—: Ez zu bezala, Wikitokin, pijaman egon zintezkela, ni sartu eta beti leku berean eserita ikusten zaitut, banoa eta leku berean zaude, itzultzen naiz eta hor zaude.

Denek egiten dute barre. Martak adoretzu erantzuten du:

—Ez dakit zertan ari zareten, baina bai.

—Ezertaz, sozializatzeari eta Wikitokin ematen dugun denborari buruz —argitzen du Ekiak.

—Orduan bai, ni beti nago, altzairu bat naizela dirudi —berriz egiten dute barre—. Egia esan, azkenaldian krisialditxo bat izaten ari naiz espazio informalen kontuarekin; gustuko ditut, baina kostatzen hasia zait giro handia eskaintzea. Kontua da gero Wikitoki-koak ez diren baina bertakoak diruditen gauzak sortzen direla... Ez dakit azaltzen naizen.

—Argi eta garbi— baieztatzen du Ekiak—, nik ere nabaritu dut hori. Batzuetan auzo garagardoetan gauzatxoak aterako balira bezala, bertan egon ez denak ez dakizkienak. Nik batzuetan, geratzen ez naizenean, kapituluren bat galdu dudala sentitzen dut.

—Hori da, nik bat-batean sentitzen dut dena oso nahastuta dagoela eta horrek pixka bat saturatzen nau —aitortzen du Martak.

Rut zutik dago Sergio eta Xabirekin hizketan. Sergiok keinu asko egiten ditu kontaktzen dien bitartean:

—Gure kooperatiba gizarte-ekonomiaren eta eraldatzailearen edo solidarioaren barruan dago, nahiz eta nik nahiago dudan eraldatzailea, bakoitzak nahi duen abizena jar diezaiola. Izan ere, guk argi daukaguna da lanean gure ekoizpen-bideen jabe izan nahi dugula, egiten dugunaren gain eta sortzen dugun aberastasuna banatzeko moduaren gain erabakitzeke gaitasuna izan nahi dugula... —Rutek eta Xabik adi entzuten dute edaten duten bitartean—.

Eta kooperatiba bat egin genuen guretzat egokiena zelako, duela 6 urte izan zen... Baina tira, argi genuena zen gurea zen zerbait egin nahi genuela eta beste modu batean jardun daitekeela frogatzea, lanean eredu soziala erabili daitekeela eta pertsona erdian jartzea irabazi ekonomikoa baino lehen; ongi bizitzea diruaren aurretik jartzen dugu —zurrupada bat ematen dio botilatxoari—. Eta gure ustez errealitatea benetan aldatzen duten gauzak burutzen ditugu.

—Itxura ona du benetan... —dio Rutek.

—Nik esaten duzuna entzuten dut eta ez dakit —mozten du Xabik tonu serioan—, edo nire kolektiboan ez dakigu gauzak ondo egiten edo ez dakit. Nire ustez oso polita da hori itxuraz, baina errealitatean asko ustiatzen dugu geure burua, eta kostatzen zaigu mugak jartzea.

Sergiok txundituta begiratzen dio eta ahotsa pixka bat igotzen du:

—Beno, nik ez dut esaten dena perfektua denik, esaten dudana da eraldaketa sozialaren nahiarekin jarduten dugula, baina ez dut ukatzen arazorik dagoenik. Nik beti esaten dut beste eredu ez zaigula gustatzen eta ez duela funtzionatzen, eta gustuko dugun beste eredu baterantz joan nahi dugula, batzuetan funtzionatzen duena eta bestetan kostatzen zaiguna —Rut begiratzen du irribarre lagun batekin.

—Bai, niri bizitza edo pertsona erdian jartzearen kontu hori —gehitzen du Xabik Sergiori zuzenean begiratzen—, ez txarto hartu, baina batzuetan iruditzen zait konplexutasuna sinplifikatzen duen eslogana dela.

—Bai, nik ez dakit ondo zer esan nahi duen eta Wikitokin askotan entzun dut —baieztatzen du Rutek.

Sergiok erantzuten du Ruti eta Xabiri aldizka begiratzen.

—Esaldi horrek ñabardura eta posizio ugari ditu. Baina nik uste dut Wikitokitik esperimentuak eta proposamenak egiten saiatzen direla, momentuz belartxoak bezalakoak badira ere, hor daudenak —dio eskuarekin keinu bat eginez bere hitzak laguntzeko—. Nik dudan beldurra da batzuetan, txikiak ikusteagatik, belatxo horiek kendu nahi ditugula eta hazkunde hormonak bota nahi dizkiegula —Rutek eta Xabik barre egiten dute bere gehiegikeriarekin—. Hau prozesu bat da eta batzuetan, eta batzuetan atzera egiten da buelta.

—Nik nahiago zaintza erdian jartzearen ideia; izan ere, bizitza, zer da bizitza? —hausnartzen Xabik.

—Ba ideiarik ere ez —jarraitzen du Sergiok—, baina ez dakit, nik uste *Wikikraziarekin* bizitza erdirago jar dezakegula, adibidez, eskaintzen dugun denbora eraginkorragoa izatea lortzen badugu.

—Bai, ados —Xabik aurre egiten jarraitzen dio—, niretzat bizitza erdigunean jartzea ekonomia modu jakin baten alde egitea ere bada; adibidez, ez da bakarrik diskurtso kontua, baizik eta sinestea eta horren arabera jokatzeta. Uste dut Wikitokin ekonomiaren kontua tabu handia dela oraindik, inork ez du diruaz hitz egiten, zenbat irabazten duen, ordua zenbatean fakturatzen duen... Eta niretzat garrantzitsua litzateke hori egitea, ikasi egingo genukeelako.

—Jo, Xabi, baina badakizu hori gai handia dela. Nik uste dut talde-estrategia behar dugula modu konstruktiboan ekonomia

sozialaren gaiari heltzeko —Sergio adiskidetzaille izaten saiatzen da.

— Bai, baina ezer gertatuko ez balitz bezala egitea ere ez da...— epaitzen du Xabik.

Une horretan Fer heltzen da eta moztu egiten ditu.

—Arraaaaioa, Wikitokin azkena izaten lehen aldia izan da eta hau beldurra, ni kakati xamarra naiz eta hori handia da oso... Bua txo! Soinuak zeuden edonon, hori paranoia hori —Fer urduri mugitzen da. Denek barre egiten dute—. Lasterka atera naiz hortik, itzultzeko asmorik gabe.

Denak barrezka lehertzen dira.

Kaña batzuen ondoren, *wikitoker* bakoitza etxerantz doa. Marta lasai doa, gertu bizi da eta oinez doan bitartean konturatzen da pozik dagoela, lehen esaten ausartzen ez zen gauzak esan dituelako, nahiz eta oraindik bere ahots propioan konfiantza handiagoa behar duen. Ekiak bizikleta hartu eta motel eragiten die pedalei, Wikitokiri esker zerbaitek emozionalki eragiten dionean bere burua zalantzan ez jartzea lortzen ari dela pentsatzen duten bitartean. Xabik autobusa hartu eta pentsatzen du pertsona bakoitzaren erritmo ezberdinekin pazientzia izatea kostatzen zaion arren, uste duela atxikimendu sentsazio berri horrek laguntzen diola, Wikitoki berea ez dela jakiteak, guztiena baizik, gauzak gertatzea ahalbidetuz. Alex aspaldi iritxi da etxera, eta enpatia gehiago nola lan-du galdetu dio bere buruari, bere bidetik atera eta besteak ikusi ahal izateko, baina oraindik ez daki ondo nola egin. Ainara lagun batzuekin elkartuko da afaltzeko eta zain dagoen bitartean pozik

dago larrialdiak eta lehentasunak erlatibizatzen gaitzeko delako. Sergiok motorra hartu du bere auzora joateko eta pentsatzen doa agian *Komunikazio Ez Bortitzaren* kontu hori gehiago landu behar duela, jendeak egiten duenaren inguruan interesa erakutsi eta jatorragoa izan behar duela. Ane denda batean sartu da afaltzeko zerbait erostera etxera bidean; uste du zerbait aldatu dela, gero eta gaitasun handiagoa daukala bere burua zaintzeko eta motxilan bereak ez diren erantzukizunak ez sartzeko. Rut oinez doa etxera eta pozik dago leku baten parte delako, non aukera duen maitasunez eta modu antolatuan taldeka lan egiteko; beti amestu izan duen, kontu txikietatik gauzak aldatzeko. Fer konturatzen da lehen ez zuela prozesuei denbora eskaintzea balioesten, baina orain zentzua ikusten diola, luzatu arren, askotan erori ez daitezten loturak behar dituztelako.

Egun luze hau benetan nekatuta amaitu dute, baina elkarrekin egiteak eta batera eraikitzeak zentzua duela sentituta, Wikitoki itxaropen-uharte txiki bat da iluntasun eta ziurgabetasunezko ozeano erraldoi honen erdian. Ez dakite hau guztiak nora eramango dituen, baina badakite esku artean daukatena indarrez hazten dela eta geldiezin bezain liluragarria dela.



1. Gutuna

Uharte, 2019ko azaroak 18

Duela egun batzuk Bilbon izan ginen Wikitoki izeneko leku bitxi bat bisitatzen. Ibaitek gertu dago, kale batzuk gorago, duela urte asko handik harria ateratzen zela gogoratzen duen plaza batean. Harrobi plaza edo Cantera plaza.

Bere biztanleek Wikitokiri “elkarsorkuntzarako laborategia” ere deitzen diote. Eta ikusi genuenez, izena benetan egokia da. Bertako biztanlee-tako batek, Host edota Isa deitzen ziotenak, lanez beteriko bisita-agenda bat prestatua zigun. Garaiz iritsi ginen hitzordura, eta Teresak hartu gintuen, espazioko behin-behineko biztanleak. Berak hondartza deitu zuen leku batera (bitxia, ez baikenuen ez urik ez hondarrik ikusi) eta Wikitokiko gainerako txokoetara eraman gintuen (armairu batean garun bat omen dute!), Isa gurekin elkartu zen arte.

Lekuko gainerako izakiak, antolatzeko moduak eta harremanak eza-gutzen joan genituen. Ezer ez zen imajinatuko zenuketen bezalakoa. Batzuk txokerrak ziren, beste batzuk mahaierrak eta beste batzuei sa-trerrak deitzen zieten. Baina guztiek izen partekatua zuten: wiktoker-rrak. Begiak eta belarriak ireki genituen ezagutzen ari genituen gauza berriak ulertzen saiatzeko.

Beno, gure ahoak eta sudurrak ere ireki genituen, bertan bazkaltzen zuten hainbat wiktokerrekin mahaia partekatu ahal izan genuelako. Oraindik gogoan ditugu udareak ardoarekin eta jengibrearekin... Ah! Eta auzoko lokal txiki bateko kuskusa. Gure ikerlanak eta laguntza-lanak par-tekatzeko eta bi egun horietan bazkaldu genuen izakiek egiten zutena ezagutzeko uneak izan ziren. Izan ere, elkarrekin jatea eta euren gauzei buruz hitz egitea gustatzen zaie, baita inguruan gori dauden eztabai-

dei buruz hitz egitea ere, hala nola Euskal Herriko jardunaldi feministei buruz, zeinetara wikitoker batzuk joan ziren. Hainbeste gustatzen zaie elkarrekin jatea, bikoteka, Sarean deitzen dioten eta aliatutzat duten auzoko lokal batera joaten direla, non elkar bazkaltzera gonbidatzen duten. Bertan, gainera, artisau garagardo gozo-gozoak zerbitzatu zizkiguten gauez.

Hurrengo goizean, oso bilera bitxi batera gonbidatu gintuzten. Hasieran oilar bat, erbi bat, bare bat, txori ero bat eta bakterio habi bat bezala aurkeztu zitzaizkigun. Urtxintxa eta hontz bezala jantzi behar izan genuen oharkabean pasatzeko. Baina kontua da bileraren amaieran transmutatu egin zirela! Bat Milu bihurtu zen (koloretako binetatan bizi den haur ilehori baten txakurra), beste bat ostruka, oilo, inurri. Bareak eta bakteriek bertan jarraitzen zuten, baina guk azkar aldatu genituen mozorroak eta katu zein arrano jantzi ginen, badaezpada ere. Zer gertatu zen? Oraindik ez daukagu garbi.

Gauza asko ikasi ditugu bi egun hauetan Wikitokin. Hitzek garrantzia dutela ikasi genuen, eta harremanak, lekuak, rolak... izen propio eta komunekin deitzeak wikitokerrak elkar hobeto ulertzea errazten duela. Esaterako, hainbat wikitokerrek parte hartzen duten zirkuluetan antolatzen direla eta zeregin propioak dituztela kontatu ziguten. Horrela ezagutu genituen COTI (egunerokotasunekoa), REMEDIOS (baliabideez eta komunikazioaz arduratzen dena) eta COLAJET (kola zaporeko eta espaziontzi formako izotz zatia zela kontatu ziguten, zeinekin Wikitokitik at hegan egiten zuten) zirkuluak.

Wikitoki haiek, wikitokerrak, direla ikasi genuen, orain bizi diren espaziotik haratago. Bertako izaki guztiek gauza desberdinak egiten dituzte, batzuek elkarrekin, beste batzuek banaka, beste batzuetan batzuk

elkartzen dira, beste batzuetan beste batzuk, baina ikasi genuen guztiak batzen dituen lana egiteko modua dela. Parte-hartzeaz hitz egin ziguten, kode irekiaz, elkarlaneko kulturaz, komunikazio ez bortitzaz, sentimenduez... wikikraziaz.

Ez duzue sinetsiko, baina behin algaraz ere ospatu zuten: "Azkenean! Biltzarra hil dugul". Eta gu euren pozaren partaide izan ginen wikikrazia deitzen duten hori lan oso lan gogorra delako, oso motela, eta denbora asko eskaintzen diote beren bizitzetatik, eguneroko lanetatik harago. Eta ilusio handiz egiten dute hori, horretarako berrienen motibazio eta bultzadaz eta lehengo jakinduriaz baliatuz.

Dena hain erraza ez dela ere kontatu ziguten, eurena bezalako erakunde batek KONTUA auzitan jartzea eskatzen duela: partekatutako lanari eta harremani eskaintzen dieten denbora; boterea; erabakiak hartzeko modua; eginkizunen banaketa eta onarpena. Baina planteamenduen seriotasunari beti umore ona eta metaforak gehitzen zizkieten beti, zeren, esaten zuten bezala, etengabeko mugimenduan dagoen prozesu guzti hori bizitza bezalakoa baita... beno, konposta bezalakoa esan zuten; as-tiro egiten baita, beroarekin, gauzak nahastuz, erdian kokatu nahi duten bizimodu on bat ordaintzeko.

Sortu zitzaizkigun eta haiek egin zizkiguten hainbat galderekin itzuli ginen etxera, euren burua antolatzeko eta harremanak izateko moduari buruz. Galdera horiek hurrengo bisita prestatzeko balioko digute, eta haiekin aurrez aurre hitz egin ahal izango dugu:

Zer nahi duzu Wikitoki izatea? Zer eskatzen diozu Wikitokiri? Zer eskaintzen dizu Wikitokik? Zein konpromiso hartzen duzu arazoei heltzeko? Zer ulertzen da denbora bankutzat eta zenbateko etekina atera behar zaio? Noraino nahi duzu harremanetan jarri edo afektatu? Zein

hizkera hartzen dira legitimotzat eta zein ez? Zer partekatu nahi dugu? Zenbateraino gara gai bizitza erdigunean jartzeko? Nola kudeatzen ditugu gatazkak sortzen direnean?

Esperientzia aberasgarria izan da, dudarik gabe. Kontatuko dizuegu.

Maitasun osoz,

Laura eta Guille

2. Gutuna

Uharte, 2019ko abenduak 11

Jende maitea,

Egun asko igaro dira bidali genuen azken gutunetik eta esan behar dizuegu aurkikuntza berri eta harrigarriak ditugula leku bitxi honi eta bertako biztanleei buruz. Wikitokin esperientzia berri batetik itzuli ginen eta esan dezakegu azken bidaia aurrekoa baino biziagoa izan zela.

Guztira hiru egun zoragarri eman genituen bertan, eta denbora gehiena Hor Aretoan eman genuen, ordu luzez, non izaki bitxi horietako askok beren ohiturak xehetasun guztiekin kontatzeko eskuzabaltasuna izan zuten. Guretzat areto hori beti izango da hitzen arrainontzia.

Lehenengo egunean elkarrizketa pertsonal interesgarriak izan genituen wiktoker batzuekin, eta gauza asko galdetu genizkien gauzak hobeto ulertzeko. Bakoitzari bere historia kontatzeko eskatu genion, eta zerk ekarri zuen leku honetara. Nola bizitzen duzu komuna dena? Nola baloratzen dituzu burutzen dituzun rolak? Nola ikusten duzu erabakiak hartzea? Nola kudeatzen duzu eskainitako denbora? Nolakoak dira zure lotura pertsonalak? Nola eragiten du Wikitokik zure bizitzan? Zeintzuk dira komunitate honetan garatzen dituzun tresnak eta gaitasunak? Zein da zure esperientzian batzen duzun ikaskuntza? Nola proiektatzen da? Gure buruak irudiez, hitzez eta emozioez betetzen joan ziren hitz egin genuen hamar izaki bitxietako bakoitzarekin.

Egun horretan bazkari gozo bat dastatu genuen Sareanen, wiktokerrek enbaxadore deitzen dituzten bi izaki bidali ohi dituzten lekua, eta, ulertu dugunaren arabera, hurbileko beste proiektu batzuk aztertzen

dituzte, behar den guztian laguntzeko eta lankidetzan aritzeko. Bertan, komunitate harrigarri honekin lehen kontaktua izan genuenarekin hitzak eta elikagaiak partekatu genituen

Hitzen arrainontzian beste une bat igaro ondoren, hain nekatuta ikusi behar izan gintuen hostak, ohore egin ziola bere izenari, eta etxera eramán gintuen atsedean hartzera; eta, beraz, beti egongo gara esker oneko horregatik.

Hurrengo goizean Auzolan deitutako talde-erritualera gonbidatu gintuzten. Esan zutenaren arabera, hamaika hilabete zeramatzaten jarduteko egitura eta modu berria eraikitzen, eta wikikrazia deitzen dioten honekin bakoitza nola sentitzen zen partekatu nahi zuten. Haien horma magnetiko batean gure arreta piztu zuen, non wikitoker bakoitzaren argazkiak kokatzeaz eta mugitzeaz gain, guretzat sinbolo misterioitsuak ziren gauzak erraztasunez margotzen eta ezabatzen zituzten.

Oraingoan ikasi dugu wikitokerrentzat hitzez gain metaforak ere garrantzitsuak direla. Adibidez, erritual horretan semaforoa deitzen zioten gauza bat erabili zuten, polo negatibo bat eta polo positibo bat zituen. Une bakoitzean sentitzen zuten energia beren gorputzekin irudikatu nahi zuten horrela. Izakietako batek, praktiketako bideratzaile gisa aurkeztu zenak (dirudienez, horrek esan nahi du esperientziarik ez duela eta besteek ebaluatu dezaketela; bide batez, primeran egin zuela iruditu zitzaigun), galderak botatzen zituen eta benetan ikusgarria zen ikustea nola mugitzen ziren alde batetik bestera, batzuetan elkarrekin, beste batzuetan banaka. Nola sentitzen zara wikikrazian? Zirkuluen egitura berriak Wikitokiren barne antolaketa errazten duela uste duzu? Uste duzu egitura berria eraginkorragoa dela erabakiak hartzerakoan? Bote-rea eta ardurak banatzeak mesede egiten duela uste duzu? Nola sentit-

zen naiz burutzen dudan posizioan? Eraginkorragoak gara denbora kudeatzen? Lehen baino gutxiago edo gehiago ematen dugu? Lehen baino lan gehiago burutzen dugu taldeka?

Batek begiratzen eta idazten zuen bitartean besteak mugitu eta hitz egiten zuten. Horrela egin zuten aurrera eta azkenean hobeto ulertu genuen, izaki bitxi horietako batek porru bat erakutsi zigunean eta horrela azaldu zigunean: hori guztia porru hori bezalakoa zen, bere alde mingotsarekin (denbora edo eginkizun gainkarga bezala) eta bere alde gozoarekin (norabidearen kongruentzia handiena bezala, zeinean boterea banatuago dagoen) eta ederra porru osoaz gozatzea dela.

Txundituta ikusi genuen ere matxinsaltoak (txapulinak, esan zuten) zituzten txokolate tabletak jaten zituztela, eta oraindik ez dakigu hori erritualaren parte zen ala ez. Egia da izaki bitxi horiek janariarekin duten harremana oso berezia dela guretzat.

Amaitzeko, proposamenez betetako kolorezko paperez bete zuten pareta; izan ere, denak behar bezala aurrera egiten duela sentitzen duten arren, wikitokerrek badakite beti daudela hobetu beharreko gauzak. Errituala amaitzeko lurrera bota ziren, batzuen buruak besteen sabelen gainean, uluka eta barre-algararaino behartuz.

Egun hartan, Wikitokiko bazkari partekatua oso jendetsua izan zen, eta taldeak eta pribilegioak errazteari buruz hitz egin genuen, baina guk ezin izan genuen bazkalostean gelditu, beste izaki batek bere hitzak oparitu behar zizkigulako.

Mundu berri hau eta bertako biztanleak askoz hobeto ulertu arren, oraindik pixka bat gehiago sakondu nahi izan genuen komunitate honetan funtsezkoak iruditzen zitzaizkigun bi alderditan. Hortaz, azken

egunean, izaki horietako batzuk ausaz hartu eta hitzen arrainontzina sartu genituen euren artean hitz egin zezaten. Boterearen gaia planteatu genien. Wikitokin, zer ulertzen da boteretzat? Zer-nolako eragina dute Wikitokin botere ardatzek (sexu-generoak, adinak, arrazalizazioak, ikasketek...)? Wikitokian boterea ematen duela kontatu zutenari dagokionez (informazioa, kideatasuna, antzinatasuna, parte-hartzea), zer egiten da berarekin, zer gatazka/asimetriak eragiten ditu, nola arautzen da, zer potentzia ditu, zer ahulezia sortzen ditu? Zein da botere banaketaren atzean dagoen filosofia, zergatik banatu?

Hori guztia azken otordua baino lehen bota genien, benetan esanguratsua izan zena ere. Jakin genuen eraikina sexu-transmisiozko gaixotasunentzako medikamentuen kontsultategi zahar bat izan zela, auzoari buruzko anekdota eta istorio atsegingarri ugari kontatu zizkiguten.










Arratsaldez, bazkalostean, beste izaki batzuk harrapatu genituen eta "bizitza erdian" deitzen denari buruz galdetu genien. Denborari, zaintzei eta diruari buruz hitz egin zuten. Autoustiapenari eta produktibismoari buruz, desazkundeari eta ekonomia feministari buruz. Batzuetan slogan batean baino ez geratzen dena betetzearen zailtasunari buruz. Baita frogatzen dituzten ekintzei zein esperimenduei buruz eta talde-posizioa izatearen beharrari buruz ere.

Berriz ere, esperientzia aberasgarria izan da, dudarik gabe. Askoz hobeto ulertu dugu leku bitxi hau zer den, euren izakiak nor-tzuk diren euren eta wikikrazia deitzen duten hori zer den. Orain etxera itzultzeko eta istorio polit hau idazteko unea da.

Maitasun osoz,

Laura eta Guille

Post-data: Itzuleran, hainbeste aurkikuntzaz nekatuta, lo geratu ginen eta amets harrigarri bat partekatu genuen: txalupa batean geunden ozeano erdian, hainbat tamainako txalupezu inguratuta, denak hari batez lotuak eta norabide berean. Iluntasuneko eta zalantzezko ozeano zabal horretaz nabigatzen argizko eta esperantzazko uharte baterantz gindoazen. Bere urertzetan arrain anitz eta bitxiak ekosistema bat ikusi genuen. Ez zen uharte bakarti bat, zuhaitzez betea zegoen: forma bihurtuak baina kimu berriak zituzten zuhaitz okertuak, kiwi zuhaitzak erori zitezkeen ekiditen zuten tutorez inguratuta, sokezu lotutako zuhaitzak non ez zen argi ikusten nork eusten zuen nor. Uharteak kartekez beteta zegoen ere, hainbat bide adierazten zituztenak: hartzen ikasi, pesimista itxaropentsua, zizare-zulua, 3.0, aurkikuntza handia, hirugarren motako topaketak, beste dimentsioan, OZeko astiaren zurrunbiloa, Alizia ispiluan zehar, zortzigarren familia eta kluster eta gaztetxe baten arteko gurutzaketa. Ez genekien zein bide hartu, ezta hitz horien guztien esanahia ere, baina urrunean mihizadura antzeko bat ikusi genuen eta jakin-nahiarekin gerturatu ginen. Identifikatu gabeko eta identifikaezina zen objektu hori hainbat gauzez eginda zegoen, labaingarri baten bidez isatsita zeudenak. Labaingarriaren etiketan "elkarsorkuntza" irakurtzen zen eta erradiazio liluragarria igortzen zuen. Erradiazioagatik liluratuta, bat-batean soinu xarmagarri batek esnatu gintuen. Abesti bat zen, "ez da hanka-sartzerik egon..." edo tankerako zerbait esaten zuena.

SORTEITO 2019		
DATA	KORTZUK *	RETORNO *
13-13	KARLY THAIS	
14-20	TXOLU CARLOS	BART ATAG 
21-29	SALOA ISA	 
28-3	LAURA IKER	
4-10	MARIAS M.A.ALEN	
11-17	MARIA A ELISA	
18-24	VXVE JOSUNE	  
25-1	IDOIA VIOLETA	
2-8	PABLO MANDER	
9-15	RITXI ROSA	
16-22	ANE JAVI	
23-29	ANTYANE OHIANE	
30-5	INES GORKA MADDI	

Glosarioa

Auzolan

Aurretik adostu diren taldeko egin-kizunak burutzeko unea.

Arterra

2014ko udaberriean Artiedan, Nafarroan, “beste mundu bat posiblea izateaz gain, beharrezkoa ere bada” lelopean sortu zen elkar-bizitzeko proiektua da. Wikitokik bere laguntzarekin burutu zuen asanblearismotik *Wikikraziarako* trantsizioa. www.arterrabizimodu.org

Baitoker

Espazioaz, kontu fisikoez arduratzten den pertsona: landareak ureztatzeaz, sukaldeko trapuak garbitzeaz eta officerako eskaera egiteaz (infusioak, kafea, ezti, gailetak, etab.). Hilero *wikitokerren* artean txandakatzen den rola da.

Denbora bankua

Wikitoker bakoitzak egiten duen denbora eta zereginak jasotzen dituen online tresna. Zehaztu da komuna denarekiko arduraldi honek gutxienez hilean 8 ordukoa

izan behar duela, ohiko lan-parametroen arabera, asteko 40 orduko lanaldi osoaren denboraren% 5 inguru izango litzatekeena. Guztira, *wikitoker* guztien artean hilero 200 bat orduko denbora komunaleko bankua osatzen dugu, lanaldi osoko pertsona baten dedikazio-denbora baino gehixeago izango liratekeenak; errendimendu galera izan liteke termino klasikoean, baina banatuta burutzean, talde-adimenetik jakintzak eta aukerak biderkatzen dituzte, taldearen funtsezko kohesio zein erantzukizuneko dinamikaz gain.

Auzo garagardoa

Wikitokin auzotik pote bat hartzeari deritzogu honi. Hedaduraz, *Sarean* elkartean horrela izendatu dute euren pintxo-pote ekimena, eta hilean behin kultur-animazioa programatzen dute plazako eta inguruko tabernetan.

Coti (Komunitatea eta Egunerokotasuna)

Wikikraziaren kudeaketa-zirkulua, zeinetan komunitateari eta komunitate barneko egunerokotasunari buruzko erabakiak hartzen diren. Erlauntzaren eta barne-harremenen zaintza.

Eginkizunak: 1. Wikitokiren eguneroko funtzionamendurako beharrezkoak diren zereginak zehaztea, antolatzea eta betetzen direla zaintzea, bai txandakakoak bai iraunkorrak 2. *Wikitokerren* arteko harremanak zaintzea eta sustatzea; taldea, Wikitokiren eta Wikitokiko bititza zaintzea.

Wikitokerrentzat abeslari sentiberra eta enpatikoa da Nada de esto fue un error abesten duena.

Komunikazio Ez Bortitza

Marshall B. Rosenbergek modu 'ez bortitzean' komunikatzeko garatutako filosofia eta proposamen praktikoa. Epaiketaren, erruaren eta eskakizunaren hizkuntza atzean uztea proposatzen du, gertakari objektiboen, gure behar pertsona-

lekin lotutako emozioen eta sentimenduen hizkuntzan barneratzeko. Komunikatzeko modu bat, lehenik barrurantz begiratzen duena, gertatzen zaigunaren erantzule izan gaitezen eta gure gatazkak konpontzeko behar duguna modu asertibo eta eraikitzailean komunikatu dezagun.

Colajet

Wikikraziaren kudeaketa-zirkulua, zeinetan proiektuei, sinergieiei eta elkarlanean dagozkien erabakiak hartzen diren. Wikitokiren harremanak besteekin eta kanpoaldearekin.

Eginkizuna: Wikitokik kanpo eragileekin duen harreman-estrategia zaintzea eta zehaztea.

Wikitokerrentzat, Wikitokitik kanpo hegan egiteko espaziontzi forma duen limoi, kola eta txokolatzeko polo izoztu bat da.

Coorditoki

Wikitokiko koordinazio-zirkulua, kudeaketa zirkulu bakoitzeko bi pertsona eta koordinatzaile batez osatuta dagoena. Partekatutako

lanaren bitartekotza egitea eta erraztea.

Eginkizunak: 1. Wikitoki misio-ikuspegia zaintzea. 2. Wikitokiren plan-gintza eta ebaluazio estrategikoa gidatzea. 3. Zirkulu desberdinetako informazioa partekatzea. 4. Hiru kudeaketa-zirkuluen lana bideratzea eta erraztea.

Wikitokerrentzat zirkuluen artean gorena da, non begirada makroko betaurrekoekin meloiak irekitzen diren eta porru osoaz gozatzen den bere zati gozo eta garratzarekin.

Enbaxadoreak

Wikitokiko bazkideak, denbora komunaren zati bat komunitatetik babesten ditugun beste kolektibo batzuei ematen dietenak. Enbaxadak helburu komunak betetzeko sarean lan egiteko beste erakunde batzuetan parte hartzeko modu bat dira.

Wikitokitik bi enbaxadetan hartzen dugu parte: Karraskanen, kulturaren berrikuntza eta berrikuntzaren kultura sustatzeko elkarrean, eta *Sarean* proiektu sozio-kulturala-

rekin, Wikitoki kokatzen den auzo berean.

Gau Irekia

Sarean elkarteak abenduan antolatzen duen kultura-jaialdi parte-hartzailea, tokiko jarduera sozio-kulturala ikusarazteko eta eragileen arteko lankidetzak bultzatzeko... www.gauirekia.com

Host

Wikitokiren oinarrizko eta eguneroko funtzionamendua zaintzen duen kontratatutako pertsona, Wikitokiren kudeaketarekin eta administrazioarekin zerikusia duen guztian oin sendo bat duena, eta beste bat harreman, dinamizazio eta komunikazioko zereginen artean pibotatzen duena.

Mahaier

Wikitoki hilero ordu batzutarako erabiltzeko modalitatea. Ez du lanpostu finkorik esleituta (aulkia eta mahaia) eta espazio komunean egokitzen da egunaren arabera.

Proiektu Kideak

Wikitokirekin lotura organikoa ez

duten proiektuak dira (ez dute bere lan-egituran edo erabaki-hartzean parte hartzen), baina lotura tematikoa eta/edo erlazionala dute, eta espazioa etengabe erabiltzen dute, topagune eta erreferentzia-lekugisa. Gainera, Wikitokiri nolabaiteko itzulkinen bat eskaintzen diote.

www.wikitoki.org/ueu/proiektuak/#asociados

Erremedioak

Wikikraziaren kudeaketa-zirkulua, non baliabideei eta bitartekoei buruzko erabakiak hartzen diren.

Eginkizuna: Wikitokiko baliabideak eta azpiegiturak, ukigarriak zein ukiezinak, zaintzea eta antolatzea.

Wikitokerrentzat erruloak dituen etxeoandrea da, bere etxeo baliabideak primeran kudeatzen dituen eta beti ingurura eta jendearen beharretara adi dagoena (Remedios deitzen baita gartzelaniaz).

Zozketatxoak

Wikitokiko bazkideen arteko informazio trukea eta harremanak sustatzeko egiten den zozketa.

Ausaz, bazkaltzeko elkartuko diren bikoteak hautatzen dira. Wikitokik astero bikote bat menu bat jatera gonbidatzen du *Sarean*, eta bikote bakoitzak itzulkin bat ekarri behar du Wikitokin dagoen panelera: esaldi bat, marrazki bat, argazki bat...

Sarean

San Frantzisko auzoko (Bilbo) kulturegune komunitarioa da, Plaza Espazioa Elkarteak koordinatua. Wikitoki elkarteko kidea da. *Sarean* elkarteak diziplina anitzeko egitaraua dauka, modu parte-hartzailan diseinatua dagoena, eta kultura bitartekaritzako proiektuak, *Gau Irekia* adibidez, koordinatzen ditu.

www.sarean.info

Tentativa_WT

Wikitokiren komunikazio-kanal informala Telegramen hainbat gai partekatuzko: logistiko-antolatzaileak, txantxak egitea, urtebetetzeak zoriontzea, jaiotzak, etab. Ez da informaziorako edo erabakiak hartzeko kanal formal ezta ofiziala ere.

Wikiplanes (Wikiplanak)

Wikitokiko komunikazio kanal informala Telegramen, planak proposatzeko, ekitaldien berri emateko edo interesgarriak diren deialdiak partekatzeko

Wikikrazia

Soziokrazia edozein motatako erakundeen autokudeaketarako balio duen gobernantza modu bat da. Akordioak eta emaitza azkarrak, eraginkorrak, gogorrak, parte-hartzaileak eta irekiak lortzeko gaitasuna handitu nahi duten espazioetan aplikatzen edo erabiltzen da. Orain arte, modu horizontalean antolatu gara Wikitokin, hilero batzar bat eginez. Denborarekin ikusi dugu, ordea, erabakiak modu arinago eta autonomoagoan hartzea ahalbidetuko digun eredu behar dugula, horizontaltasuna galdu gabe. Malguagoa izatea ere behar dugu, denok ezin baitiogu beti denbora bera eskaini proiektu komunari. Horregatik, Sociokraziarekin probatzea erabaki dugu, eta eredu horretaranzko trantsizio prozesu

batean gaude, *Wikikrazia* deitu dugun esperimentu batean.

Wikiriki

Ikerketa- eta sorkuntza-egoitzen deialdia, diziplinaz gaindikoa, Wikitokiren lankidetzako hainbat alderdiren inguruan. WIKI elkarlanagatik. IRIKI irekia denagatik. KIKIRIKI dei gisa. www.wikitoki.org/eu/ego-naldiak/

Wikitokerrak

Antolaketan, funtzionamenduan, jarduerak gauzatzean, zereginen banaketan eta erabakiak hartzean aktiboki parte hartzen duten pertsonak edo erakundeak. Wikitoki proiektua osatzen dutenak dira. www.wikitoki.org/eu/nortzuk/

Argitaratzailea

WIKITOKI

Wikitoki Elkatea Elkarsorkuntzarako laborategia

Harrobi plaza – 2. solairua, 48003 Bilbao

wikitoki.org

info@wikitoki.org

Testuak

Laura Latorre Hernando eta Guillermo Vera Idoate.

Euskarazko itzulpena

Alex Barandiaran Castaño eta Amaia Elortza Agirregabiria.

Irudiak eta diseinua

Josune Urrutia Asua.

1. inprimaketa: 2020ko apirila.

200 ale gazteleraz eta 100 euskaraz.

ISBN

978-84-09-19401-8

Lege-gordailua

BI 00550-2020

CC BY-NC-ND 4.0

Lan hau Creative Commons-en Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko lizentziari lotuta dago.

Dokumentu honen edukia egileen ardura baino ez da.

Wikitoki Elkarteak Elkarsorkuntzarako Laborategiak finantzatu du proiektu hau ondorengoan laguntzarekin



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



foru aldundia
diputación foral



Talde-kontakizun bat

Wikirikin, elkarlaneko proiektuentzako Wikitokiko egonaldietan, hautatutako proiektuetako bat da.

Talde-kontakizun bat Laura Latorre Hernandoren eta Guillermo Vera Idoateren proposamena da. Proposamenaren helburua zera da: praktika narratiboaren oinarrien bitartez, Wikitoki komunitatea laguntzea bere kultura afektiboa eta antolakuntzako nolakoa den deskribatzen duen ez-fikziozko literatura-kontakizun baten sorreran.

WIKITOKI

Elkarsorkuntzarako Laborategia
Laboratorio de prácticas colaborativas